

# BALIO PROPOSAMENAK

Gure negozioiek beste negozioek eskaintzen ez dituzten ezaugarriak eskainiko luke. Hala nola pertsonalizazioa. Gure negozioak ez litzateke arropa egitera mugatuko, baizik eta bezeroen eskaerei erreparatu eta eta haien nahi eta beharren arabera, diseiunak egokituko lituzke. Beste era batera esanda, guk egingo genituzkeen diseiunak bezeroen gustu eta neurrietara egokitutakoak izango lirateke.

Horrez gain, diseinuak originalak izango lirateke, noski, bezeroek eskatzen dituzten ezaugarriak kontuan hartuz diseinatutakoak. Gainera, gure negozioak bezeroei 'lana erraztuko' lieke. Bezeroek dendetara arropa bila, neurri bila eta estilo bila joan beharrean, haien buruan duten ideia guri transmititu eta aste gutxi baten buruan, haien ametssetako arropa etxean eukiko lukete.

Gure enpresaren balioa kualitatiboa izango litzateke, hau da, gure enpresak arroparen kalitate maila handiagatik ezberdinduko litzateke.

Nahi eta gure produktuen prezioa pixkat altuak izango diren, prezioak konstante mantentzen ahaleginduko ginateke.

Zerbitzu mota hau eskaintzen duen enpresa bakarra garenez (inguru honetan behintzat), espero dugu bezeroek guran konfiantza izatea eta gure arropak erostea.